

1. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, denen artean, lagun berrien albuma egingo dute. Lehen unitate honetan, liburuko pertsonaia nagusi izango diren Barras eta Mukizu aurkezten dira. Orri batean, oportetan edo beste uneren batean egin dituzten lagun berrien aurkezpena eta deskripzioa egingo dute, haien argazkia edo marrazkia barne, eta, guztiekin, albuma osatuko dute.

METODOLOGIA

Banaka, lagunaren fitxa egingo dute. Taldeka, albuma antolatzeko proposamena egin, eta arduren banaketa egingo dute. Europako nahiz munduko mapak edo Internet erabiliko dute, lagunaren jatorria identifikatzeko eta ahozko adierazpena egiteko. Aldizkariak erabiliko dira, pertsonaia ospetsuak identifikatzeko eta, taldeka, ezagutzen dituzten ala ez adierazko.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Lagun bati buruzko informazioa ulertzea eta esatea.
- Arretaz entzutea, informazioa jasotzeko eta galderei erantzuteko.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta transferentzia egitea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Norberaren eta lagun berriaren ahozko aurkezpena egitea, sarrera egokia erabiliz eta oinarrizko informazioa emanaz.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Bere buruaren aurkezpenean, ematen du oinarrizko informazioa.
- 1.2. Lagunaren aurkezpenean, ematen du oinarrizko informazioa.
- 1.3. Ahozko aurkezpenean, erabiltzen du landutako esapideren bat.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Lagun bati buruzko informazioa idaztea: aurkezpena eta informazioa bereiziz.
- Ereduak birmoldatzea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Lagun berriaren deskripzioa idaztea, aurkezpena eta deskripzioa bereiziz, eta gustuak, hizkuntza eta non ezagutu zuen adieraziz, albuma osatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Deskripzioan, badaki aurkezpena eta informazioa bereizita idazten.
- 2.2. Gauza da eskatutako informazioa idazteko: adina, bizitokia, izaera, hizkuntza eta gustua.
- 2.3. Ondo idazten ditu albumaren azala eta aurkibidea.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

Esaera zaharra ulertzea.
Irakurtzea, informazioa aurkitzeko.

Ebaluazio-irizpideak

3. Informazioa aurkitzeko estrategia ikastea, eruedetan erabiltzeko eta eurena sortzeko.
4. Esaera zaharra ulertzea eta pertsonaiekin erlazionatzea.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Galderen bidez, badaki informazioa identifikatzen eta kolorez adierazten.
- 4.1. Ohartzen da pertsonaien antzekotasunaz.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.

Edukiak

Pertsonen izaera: ona, zintzoa, bihurria...
Ekintzak: bizi da, gustatzen zaio, ez zaio gustatzen...
Aurkezpenak: hau ... da. Nire lagunaren izena...

Ebaluazio-irizpideak

5. Idatzizko deskripzio eta ahozko aurkezpen zuzena eta koherentea egitea, informazioa era egokian antolatuz, ulergarria egiteko.

Ikasketa-adierazleak

- 5.1. Ondo erabiltzen du aurkezpeneko sarrera-esapidea.
- 5.2. Lagunaren aurkezpenean, badaki aditza 3. pertsonan erabiltzen.
- 5.3. Deskripzioan, ondo antolatzen du informazioa.
- 5.4. Ondo idazten du informazioa.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarritzko

gaitasunak

- Munduko lurraldeak mapan kokatzea eta zer hizkuntza erabiltzen den adieraztea.
- Lurraldeak geografikoki kokatzea.

Hizkuntza-komunikaziorakoa

- Aurkezpenak ulertzea eta ahoz zein idatziz adieraztea.
- Ezagutzak adieraztea.
- Lagun bati buruzko informazioa ulertzea eta idaztea.

Gaitasun digitala

- Mapak interpretatzea eta informazioa bertan kokatzea.
- Internet erabiltzea.
- Informazioa tauletan antolatzea.

Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak

- Pertsonen ezaugarriak errespetatzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Beste kulturak eta hizkuntzak errespetatzea.
- Esaera zaharra ulertzea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Lankidetzan lan egitea, aluma egiteko.

2. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, taldeka, irratsaioa egingo dute, zuzenean edo grabatuta. Ahozkotatua lantzeko unitatea da. Bertan, orain arte landutakoa erabiltzeko aukera izango dute, baina era motibagarrian (menua, asmakizunak, iragarkiak, eguraldia, kirolari buruzko informazioa...). Gelarako edo eskolarako emanaldia prestatuko dute, zuzenean edo grabatuta. Eduki batzuk aurreko urtean landu dira. Errepaso moduan, maila horretako ariketa batzuk egin ditzakete.

METODOLOGIA

Talde-lana egingo dute, irratsaioa prestatzeko. Talde bakoitzak bere proposamena aurkeztu, eta aurrera eramango du. Lankidetzan landuko da, denen proposamenak onartuz eta ardurak banatuz. CDa, bestalde, hizkuntza-baliabideak entzun, ulertu eta ikasteko erabiliko da. Internet ere erabiliko dute, informazioa aurkitzeko. Eguraldia azaltzeko, meteorologia edo Internet erabiliko da.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Irratsaioko informazioa ahoz adieraztea.
- Asmakizunak sortzea.
- Ereduak entzutea, aztertzea eta konparatzea.
- Irratsaioaren denbora-sekuentzia identifikatzea eta jarraitzea.
- Adostasuna adieraztea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Irratsaioa adieraztea, gidoiaren arabera aurkezleei sarrera eginez, eta ahoskera egokia erabiliz, ahozkoa lantzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Erabiltzen du gidoia, irratsaioa egiteko.
- 1.2. Ondo esaten ditu irratsaioaren agurrak.
- 1.3. Ondo esaten ditu irratsaioaren jarraipeneko egiturak.
- 1.4. Badaki nork hitz egingo duen esaten.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Irratsaioaren gidoia idaztea.
- Informazioa bilatzea, antolatzea eta idaztea.
- Taulak eta eskemak interpretatzea.
- Menua, eguraldia, iragarkia eta deskripzioa ulertzea eta idaztea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Irratsaioa antolatzea eta gidoian idaztea, ardurak banatuz, atalak erabakiz eta lana banatuz, eta orain arte landutako testuak erabiliz, ikasitakoa beste egoera batean erabiltzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Erabiltzen ditu teknologia berriak.
- 2.2. Gauza da lana taldekideen artean banatzeko.
- 2.3. Badaki irratsaioaren gidoia ereduaren laguntzaz idazten.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

- Asmakizunak.

Ebaluazio-irizpideak

3. Asmakizuna sortzen eta asmatzen jolastea, ikasitakoa erabiltzeko.

Ikasketa-adierazleak

3.1. Jolasten da asmakizunetara.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Hasiera eta amaierako agurrak: hemen dago, egun on, hau izan da ...

Albistearen atalak: titularra.

Jarraipeneko egiturak: lehenengo, gero, ondoren, jarraian.

Ezeta: ez dago...-rik, ez du...-rik.

Ebaluazio-irizpideak

4. Irratsaioa zuzen adierazten ikastea, informazio zuzena eta koherentea emanez, besteei informazioa emateko.

Ikasketa-adierazleak

4.1. Zuzen esaten du atal bakoitzaren informazioa.

4.2. Ondo erabiltzen ditu esaldiaren egitura eta aditza.

4.3. Badaki iragarkiak idazten.

4.4. Ondo erabiltzen ditu agurrak.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Eguraldia adieraztea.
- Eguna antolatzea eta sailkatzea, ordutegiaren arabera.
- Irratsaioaren denbora-sekuentziari jarraitzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Lana planifikatzea, gidoiaren bidez irratsaioa egiteko.
- Lana taldekideen artean banatzea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Informazioa aurkitzea eta zabaltzea.
- Iragarkiak, asmakizunak, berriak... ulertzea eta ahoz adieraztea.

Gaitasun digitala

- Internet erabiltzea, informazioa aurkitzeko.
- Informazioa konparatzea eta kontrastatzea, iturri ezberdinak erabiliz.

Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak

- Lankidetzan aritzea.
- Besteen proposamenak onartzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Irudimena erabiltzea, irratsaioa antolatzean.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Aurreko unitateetan landutakoa egoera berrian erabiltzea.
- Ardura hartzea eta betetzea.

3. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, herriko kaleetako pertsonaien biografia egingo dute. Unitate honetan, herrietako kaleen izenak nondik datozen ikasiko dute; hau da, noren edo zeren izenak diren. Pertsona-izenen kasuan, nor izan zen, zer egin zuen ... Datu horiekin, biografia laburra idatziko dute. Biografia horiek eskolako hainbat tokietan jar daitezke, denek ezagutzeko.

METODOLOGIA

Interneten eta liburutegian, kaleei buruzko informazioa aurkituko dute. Banakako lana egingo dute, eta bakoitzak bere testua idatziko du. Ahozko adierazpenerako, CDa erabiliko da, eredu entzun, ulertu eta bertako hizkuntza-egiturak erabiltzeko, baita euskal abestiak entzun eta ikasteko ere.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Norberaren bizipenak kontatzea.
- Datu pertsonalak esatea: helbidea eta izenaren jatorria.
- Besteen informazioa entzutea eta ulertzea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Norberaren bizitokiaren berri ahoz esatea, helbidea eta kalearen izenaren jatorria adieraziz, norberaren bizitzari buruzko informazioa beste adierazteko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Ulertzen du besteek diotena.
- 1.2. Esaten du bere helbideari buruzko informazioa: kalea eta izenaren jatorria.
- 1.3. Saiatzen da bere bizipeak euskaraz adierazten.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Biografia-ereduak irakurtzea.

Informazioa eskema edo tauletan antolatzea.
Biografia idaztea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Ereduen laguntzaz, pertsonaia ospetsuen biografia idaztea, haien bizitzari buruzko informazioa aurkituz eta antolatuz, eta haien lanak gizartean izan duen eragina ezagutzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Badaki biografietatik datu zehatzak identifikatzen eta datu-fitxan idazten.
- 2.2. Gauza da datu-fitxaren arabera biografia sortzeko, atal guztiekin.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

Abestiak eta txistekak irakurtzea eta ulertzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Euskarazko abesti eta txistekak ezagutzea, jolas-giroan erabiltzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Gogoz hartzen du parte ekintza horietan.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Biografiaren atalak.
Aditzaren denbora: lehenaldia; 1.a eta 3.a.
Haren izenordaina.

Ebaluazio-irizpideak

4. Biografiako informazioa eta atalak koherentziaz eta zuzentasunez idaztea, izenaren ordezkapena eginez testu zuzena idazteko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki *haren* izenordaina erabiltzen, hitza ez errepikatzeko.
- 4.2. Gauza da pertsonaiaren izena letra larriz idazteko.
- 4.3. Ondo idazten du zer izan zen, eta noiz eta non jaio eta hil zen, baita zer lan egin zituen ere.
- 4.4. Erabiltzen du lehenaldia.
- 4.5. Ordenaturik eta koherentziaz idazten du biografiaren informazioa.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Ogibideak ezagutzea.

- Denboraren neurketa egitea, noiz jaio eta noiz hil den adieraztean.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Informazioa antolatzea.
- Lana planifikatzea eta burutzea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Bizipenak kontatzea.
- Biografia idaztea.
- Biografiak irakurtzea eta ulertzea.

Gaitasun digitala

- Informazioa aurkitzea eta antolatzea.
- Internet eta liburutegia erabiltzea.
- Eskemak interpretatzea.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Beste kultura batzuk ezagutzea eta errespetatzea.
- Besteen ideiak eta ogibide guztiak errespetatzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Tradizioko abestiak ikastea eta abestea.
- Euskarazko txistek ikastea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Besteekiko enpatia izatea.
- Erabakiak hartzea.
- Kontrol-orria erabiltzea, egindakoa zuzentzeko.

4. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, taldeka, iragarkiak egingo dituzte. Unitate honetan iragarkiekin jolastuko dira. Jolas-giroan, hizkuntzarekin jolastuko dira, iragarkiak eginez, baina idatzizkoak bakarrik. Aldi berean, publizitatearen eraginaz hitz egingo dute; iritzi kritikoa izango dute: ematen den informazioa zuzena den, eta zein den publizitatearen benetako funtzioa.

METODOLOGIA

Talde-lana egingo dute. Talde bakoitzak bere iragarkia sortuko du. Telebista eta irratiko iragarkiak entzun eta aztertuko dituzte; konparatu ere egingo dituzte, bakoitzaren atalak edo elementuak identifikatzeko. Musikaren eta abestiaren erakargarritasunaz hitz egingo dute. Paperezko hainbat eratako iragarkiak behar dira lan egiteko.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Solasaldian aritzea, gaiaren inguruan.
- Sentimenduak adieraztea.
- Produktuen ezaugarriak ulertzea eta adieraztea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Iragarkiak ahoz interpretatzea, elementuak aztertuz, koloreen esanahia eta sortzen duten sentimenduak adieraziz, iritzi kritikoz jokatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Esaten du iragarkiak zer adierazten dion: egin behar duena, sortzen dion sentimendua eta iritzia.
- 1.2. Badaki irudien laguntzaz esloganak asmatzen eta esaten.
- 1.3. Izendatzen du elementu bakoitza.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Iragarkiak sortzea: izena, eslogana, kolorea, marrazkia.
- Koloreen esanahia eta sentimenduak.
- Iragarkiak interpretatzea.
- Ereduetatik informazioa ateratzea eta antolatzea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Iragarkiak idatziz sortzea, benetakoak aztertuz, haien atalak bereiziz, atal bakoitzeko ezaugarriak aztertuz, irudien bidez komunikatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ondo idazten du iragarkia: irudia eta testua.
- 2.2. Ondo azaltzen du iragarkian produktuaren nolakotasuna.
- 2.3. Badaki eslogana eta produktua erlazionatzen.
- 2.4. Hartzen eta betetzen ditu ardurak talde barruan.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

- Berri bitxiak irakurtzea.
- Liburutegia erabiltzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Liburutegia erabiltzea, informazioa aurkitzeko eta irakurketaz gozatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Badaki informazio hainbat eratan aurkitzen.
- 3.2. Ulertzen ditu berri bitxiak.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Iragarkien atalak eta funtzioa.

Superlatiboa: ...-rik ...-en.

Aditza: agintera.

Sentimenduak: tristura, poza, lasaitasuna...

Ebaluazio-irizpideak

4. Iragarkien funtzioa ezagutzea eta zuzen idaztea, haien elementuak aztertuz, pertsonen portaeran duten eraginaz jabetzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ondo azaltzen du emaileak zer egin behar duen iragarkiko mezuan edo esloganean.
- 4.2. Ondo erabiltzen du superlatiboa.
- 4.3. Badaki agintea ondo erabiltzen esloganean edo mezuan.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Bizitzako produktuak aztertzea, eta ezaugarriak identifikatzea.
- Espazioa antolatzea, iragarkia egiterakoan.
- Datuak sailkatzea eta tauletan kokatzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Iragarkiak konparatzea eta iritzi kritikoz aztertzea.
- Lana banatzea eta ardurak betetzea.
- Iragarkiak konparatzea eta datuak ateratzea, gero erabiltzeko.

Hizkuntza-gaitasuna

- Iragarkiak ulertzea eta idaztea.
- Sentimenduak adieraztea.
- Berriak irakurtzea.
- Solasaldian aritzea.

Gaitasun digitala

- Informazioa aurkitzea, antolatzea eta erabiltzea.
- Informazioa besteei azaltzea.
- Ordenagailua erabiltzea, iragarkiak aztertzean edo sortzean.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Taldean lan egitea.
- Ardurak betetzea.
- Besteen ekoizpenak errespetatzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Iragarkien mundua ezagutzea.
- Irudimena erabiltzea.
- Koloreen esanahia ezagutzea eta erabiltzea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Lana taldean banatzea.
- Erabakiak hartzea.
- Proposamenak egitea.

5. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, antzezlan baten dekoratua, jantziak eta iragarki-kartela egingo dute, gero antzezteko.

Unitate honetan, antzezpina egin behar dute. Ulermenaren aldetik, nahiko testu errazak dira. Bi bertsio dira, gai beraren inguruan. Antzezlana gelatik kanpo egitea proposatzen da; horretarako, iragarki-kartela prestatuko dute, zuzenean egiteko emanaldia. Bestalde, teknologia berriekin lotuta, eta beldurrak eta urduritasunak saihesteko, grabatu egin daiteke emanaldia. Antzezlanaz gain, bakoitzaren pertsonaia eta haren mozerroa nolakoak diren esaten ere ikasiko dute.

METODOLOGIA

Talde-lana egingo dute. Bi bertsio daude, eta talde bakoitzak bat aukeratuko du. Taldean, jantziak nahiz dekoratua erabaki eta prestatuko dituzte. CDa erabiliko dute adierazkortasuna lantzeko, baita proposamenak egiteko behar dituzten hizkuntza-baliabideak ikasteko ere.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

Ahoskera eta doinua lantzea.

Entzutea, datuak jasotzea eta adieraztea.
Jantziak asmatzea eta besteei adieraztea: nola dagoen jantzita eta nolakoa den.
Antzezlanaren egitea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Denon artean antzezlanaren egitea, istorioari jarraituz, ahoskera argiz denok ulertzeko.
2. Norberaren pertsonaia eta janzkera adierazten ikastea, ereduaren laguntzaz, besteei adierazteko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Bereizten du pertsonaia bakoitzak diona, eta esaten du bere testua.
- 1.2. Errespetatzen du pertsonaien ordena.
- 1.3. Saiatzen da ahoskera eta doinua egokitzen.
- 1.4. Errespetatzen du istorioaren denbora-sekuentzia.
- 1.5. Banatzen ditu lanak taldean.
- 1.6. Antzezpenean, adierazten ditu testua eta, gorputzaren bidez, esanahia.
- 2.1. Adierazten du nola jantziko den.
- 2.2. Badaki nolako dekoratua egingo duen azaltzen.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

Antzerkia: testua, dekoratua eta jantziak.
Iragarki-kartela idaztea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Iragarki-kartela idatzi, izenburua, nor egiten duen, tokia, eguna eta ordua adieraziz, besteei informatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Iragarki-karteletan, identifikatzen ditu atalak.
- 3.2. Iragarki-karteletan, idazten ditu atal guztiak.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

Antzerki-testua ulertzea.
Antezlanarekin gustura egotea.

Ebaluazio-irizpideak

4. Antzezlanaren ulertu eta antzezpenean parte hartu.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ulertzen du antzerki-testua: esaten du munduko indartsuena nor den.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Jantzien nolakotasuna: paperezko, oihalezko...

Iragarki-kartelaren atalak: noiz, non, nor.

Denbora: asteko egunak, orduak, hilak, zer ordutan, noiztik nora.

Ebaluazio-irizpideak

5. Iragarki-kartela zuzen idatzi, atalak eta arauak errespetatuz informazio argia emateko.

Ikasketa-adierazleak

5.1. Ondo kokatzen ditu atalak espazioan.

5.2. Hizkuntzaren aldetik, zuzen idazten du atal bakoitza.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Natura eta animalien ezaugarriak eta kokapena ezagutzea.
- Denbora adieraztea: hilak, orduak...
- Antzezteko ordena zehaztea.
- Dekoratu egiteko neurriak, eta espazioan kokatzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Erabakiak eta ardurak hartzea, antzerkia egiteko.
- Antzerkia egin baino lehen, eginbeharrak zehaztea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Antzezpena egitea.
- Antzerki-testua irakurtzea, ulertzea eta ikastea.
- Solasaldian aritzea, prestaketa egiteko.
- Iragarki-kartela idaztea.

Gaitasun digitala

- Informazioa jasotzea eta antolatzea.
- Besteei informazioa zabaltzea.
- Iragarki-kartela idaztea.
- Bideoz grabatzea.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Taldean proposamenak egitea eta besteenak onartzea.
- Besteen hitz egiteko erak errespetatzea.
- Talde-lanean aritzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Dekoratu eta jantziak egitea, irudimena erabiliz.

- Iragarki-kartela apaintzea.
- Kultura ezberdinetako ipuinak irakurtzea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Ardurak hartzea eta betetzea, antzezlan egiteko.

6. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, sumendia egingo dute taldeka, eta, gero, besteei azaldu. Unitate honetan, ikasgelak laborategiaren itxura hartuko du. Bertan, ikasleek euskaraz esperimenduak egingo dituzte. Ahal den neurrian, unitatea era praktikoan egitea proposatzen da; alde batetik, esperimenduak errazak direlako eta bestetik, produktuak ez direlako arriskutsuak, eta euskara jolas giroan ikasteko aukera ematen zaielako.

Ikasleek hipotesiak egin eta, gero, egiaztatu egingo dituzte, metodo zientifikoa erabiliz: esperientzia egin, behatu, datuak jaso eta ondorioak atera.

METODOLOGIA

Taldeka, sumendia egingo dute, labaren esperimendua egiteko.

Esperimentuaren fitxa idatzi eta, bertan, prozesu osoa azalduko dute.

Talde-lanaren bidez, proiektua aurrera eramateko, lanen banaketa egiten eta ardurak betetzen ikasiko dute.

CDa erabiliko da, ahozko aurkezpenarako gidoia ikasteko.

Ekintzen jolasa, berriz, esperimenduetan erabiliko dituzten aditzak ikasteko erabiliko da.

Autorregulazioa landuko da. Esperimentuaren balioespena egin, izan dituzten zailtasunak identifikatu eta bakoitzak bere lana balioetsiko du.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Asmoak edo usteak adieraztea.
- Sumendia nola egin azaltzea.
- Instrukzioak ulertzea.
- Behaketa eginda, hipotesiak planteatzea.
- Solasaldian aritzea: mahai-jolasa.
- Esperimentuak besteei azaltzea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Esperimendua ahoz azaltzea, sarrera (bere hipotesiarekin), materiala (nola egin) eta ondorioa adieraziz, besteei erakusteko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Badaki sumendia nola egiten den esaten, ordenari jarraituz.
- 1.2. Badaki laba nola koloreztatzen den esaten, ordenari jarraituz.
- 1.3. Laguntzarekin, erabiltzen du lexiko egokia.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

Jarraibidezko testua: izenburua, zer behar den, kopurua eta nola egin.
Irudiak interpretatzea, hipotesiak egitea eta informazioa idaztea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Esperimentuak ulertu eta egitea, hipotesiak adieraziz eta frogatuz, eta emaitzak eta prozesua idatziz, besteei egiten erakusteko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ulertzen ditu jarraibide idatziak, eta, pausoz pauso, betetzen ditu.
- 2.2. Ondo idazten du esperimentu-fitxa, atal guztiekin.
- 2.3. Idazten ditu denbora-sekuentzia eta ekintzak.
- 2.4. Betetzen du taldeko ardura.
- 2.5. Erabiltzen ditu teknologia berriak.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

Asmakizunak irakurtzea eta ulertzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Asmakizunak ulertzea.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Badaki erantzun zuena ematen.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Denbora-sekuentziako lokailuak ulertzea eta erabiltzea: lehenengo, gero, ondoren.

Jarraibidezko testuaren funtzioa.

Ekintzak: bota, hartu, bete, ...

Ustea adierazteko esamoldea: ... dela/ duela uste dut.

Ebaluazio-irizpideak

4. Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen egiten ikastea, ereduak aztertuz eta birmoldatuz, ikasleek euren sortzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki ideiak edo hipotesiak egitura egokiz esaten.

- 4.2. Era egokian adierazten ditu asmoak.
- 4.3. Ondo erabiltzen ditu lokailuak, esaldiak lotzeko.
- 4.4. Prozesua azaltzean, zuzen erabiltzen du aditza.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Uraren egoerekin esperimenduak egitea.
- Labaren esperimendua betetzea eta ulertzea.
- Kopuruak adieraztea.
- Prozesua aurrera eramateko, ordenaren garrantzia ezagutzea

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Lanak banatzea.
- Usteak adieraztea eta frogatzea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Asmoak adieraztea.
- Fitxa idaztea.
- Esperimendua nola egin esatea.
- Esperimenduak irakurtzea.

Gaitasun digitala

- Behaketaren bidez informazioa ateratzea, hipotesiak egitea eta egiaztatzea.
- Irudiak interpretatzea eta ideiak idaztea.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Besteen ekoizpenak errespetatzea.
- Jolasean, arauak errespetatzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Esperimenduak euskaraz egitea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Saiakerak egitea, ondo atera arte.
- Ardurak hartzea eta betetzea.

7. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, hainbat lurraldetako izaki mitologikoen albuma egingo dute.

Unitate honetan, mitologiaren munduan sartuko dira ikasleak. Euskal izakiak eredutzat hartuko dituzte gure kultura hobeto ezagutzeko; baina, gero, bakoitzak bere kultura edo jatorrizko mitologiako izakia deskribatuko du. Kultura-aniztasuna landuko da, izaki mitologikoen bidez. Deskribapen guztiak albumean bilduko dituzte.

METODOLOGIA

Banakako lana izango da, bakoitzak bere pertsonaia deskribatuko baitu. Baina hobekuntzak partekatuak izan daitezke. Kontrol-orriaren arabera, elkarri zuzendutakoak izango dira.

Izaki buruzko testuen irakurketa, hain zuzen ere, mitologiaren sorrera azaltzeko, informazioa aurkitzeko eta horretaz gozatzeko erabiliko da. Internet eta liburutegia erabiliko dira, izakiei buruzko informazioa aurkitzeko. Taldeka, albumaren azalaren proposamena egingo dute. Jolasa, azkenik, ikasitakoa jolas-giroan erabiltzeko izango da.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Besteen ahozko zailtasunak errespetatzea.
- Arretaz entzutea.
- Gaiaren inguruko solasaldia egitea.
- Pertsonaia mitologikoen deskripzioa: fisikoa, izaera eta antzekotasuna.

Ebaluazio-irizpideak

1. Mitologiako izaki bati buruzko ahozko deskripzioa egitea, informazioa aurkituz eta antolatuz, izaki horiek ezagutzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Gidoiaren arabera, badaki izaki mitologikoa deskribatzen.
- 1.2. Badaki era ulergarrian hitz egiten.
- 1.3. Arretaz entzuten du, eta identifikatzen ditu ezaugarri nabarmenak.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Gidoia erabiltzea, informazioa antolatzeko eta testua idazteko.
- Izaki mitologikoen deskripzio idatzia egitea.
- Informazioa aurkitzea eta antolatzea.
- Liburutegia eta Internet erabiltzea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Mitologiako izaki bati buruzko deskripzioa egitea, informazioa aurkituz eta antolatuz, izaki horiek ezagutzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Badaki informazio zehatza ateratzen.
- 2.2. Ondo antolatzen du informazioa, gidoiaren arabera.
- 2.3. Badaki informazioa aurkitzen eta tauletan antolatzen.
- 2.4. Erabiltzen du aurkibidea, informazioa azkar aurkitzeko.
- 2.5. Ondo deskribatzen du izakia, kontrol-orriaren arabera.
- 2.6. Erabiltzen ditu Internet eta liburutegia.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

- Mitologiako pertsonaiak eta kondairak.
- Norberaren eta besteen ohiturak eta sinesmenak errespetatzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Mitologiako izakiak ezagutzea, irakurriz eta beste kulturetakoekin konparatuz, beste kultura batzuk ezagutzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Irakurtzen ditu gure kulturako eta beste kultura batzuetako kondairak, eta ondo ulertzen ditu, laguntzarekin.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.

Edukiak

- Aditz-denbora: -ten/tzen.
- Noren/zeren antzekoa* esamoldea.
- Deskripzioaren egitura: pertsonaia, nongoa, noren antzekoa, deskripzioa, non bizi da eta zer egiten du.

Ebaluazio-irizpideak

4. Ahozko eta idatzizko adierazpen argia eta zuzena egiten ikastea, ereduaren laguntzaz, albuma sortzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki esaldiak egitura egokiz idazten edo esaten.
- 4.2. Ondo erabiltzen du aditz-denbora.
- 4.3. Badaki ideiak ordenan idazten.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Gizakien sinesmenak ezagutzea.
- Gure arbasoen sinesmenak ezagutzea.
- Inkestak egitea eta datuak tauletan jasotzea.

- Hitz gurutzatuak osatzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Beste hizkuntzako estrategiak euskarazko testuak ulertzeko erabiltzea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Hainbat estrategia erabiltzea, testua ulertzeko.
- Solasaldian aritzea.
- Gidoiaren arabera, azalpena egitea.
- Kontakizunak ulertzea.

Gaitasun digitala

- Teknologia berriak erabiltzea, informazioa aurkitzeko eta idazteko.
- Liburutegia erabiltzea, informazioa aurkitzeko.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Beste kulturak ezagutzea eta onartzea.
- Besteen sinesmenak errespetatzea.
- Besteen ekoizpenak errespetatzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Euskal mitologia ezagutzea.
- Euskal sinesmenak errespetatzea.
- Izaki berriak sortzea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Ikasitakoa bizitzan erabiltzea: noren antza duen.
- Izakien ezaugarriak pertsonekin konparatzea.

8. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, ezkutua asmatu eta egingo dute, gero, marraztuko dute armarrria, besteei ahoz deskribatzeko.

Unitatean, armarrien eta ezkutuen munduan sartuko dira ikasleak. Armarrriak zer diren eta nola sortu ziren ikasiko dute.

Irudimena erabiliko dute ezkutua asmatzeko; baina, idatzizko eta ahozko deskripzioa egiteko, hitz teknikoak erabiliko dituzte.

Armarri guztiekin, bilduma edo erakusketa egin daiteke.

METODOLOGIA

Informazio osagarri moduan CD-Ron Heraldica Vasco-Navarra, herriko armarrien argazkiak, edo bisitaldia egin daiteke herrian zehar.

CDa, bestalde, ahozko deskripzioaren eredia entzun eta ikasteko erabiliko da.

Ezkutuen jolasa ahozko deskripzioan sakontzeko erabiliko da. Irakurgaiak irakurri eta irudien laguntzaz ulertuko dituzte. Beharrezko informazioa ulertuko dute, gero erabiltzeko.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

- Entzungaia ulertzea eta informazioa ateratzea.
- Ahozko eta idatzizko testua bereiztea.
- Asmatutako ezkutuen eta armariaren deskribapena egitea.
- Solasaldian aritzea.
- Arretaz entzutea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Norberak sortutako ezkutuen marrazkia, armaria, ahoz deskribatzea, ereduaren laguntzaz, ahozkoa eta idatzizkoa bereiziz, hizkuntza aberasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Ereduaren laguntzaz eta gidoiari jarraituz, deskribatzen ditu ezkutuak.
- 1.2. Deskripzioan, erabiltzen du aditza.
- 1.3. Entzun eta identifikatzen ditu ezkutuen eta armarien elementuak.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Irudiak interpretatzea.
- Ereduak aztertzea eta konparatzea.
- Lana planifikatzea: gidoia eta zirriborroa egitea.
- Marrazkiak erabiliz, armariak eta ezkutuak deskribatzea.
- Testuak irakurtzea eta marrazkiz adieraztea.
- Zuzentasunaren garrantzia balioestea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Norberak sortutako ezkutuen marrazkia idatziz deskribatzea, ereduaren laguntzaz, ahozkoa eta idatzizkoa bereiziz, hizkuntza aberasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Badaki zirriborroa egiten eta zuzentzen.
- 2.2. Badaki testua marrazkiarekin erlazionatzen.
- 2.3. Osatzen ditu falta diren datuak.
- 2.4. Badaki informazioa ordena egokian idazten.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

- Abestia irakurtzea, ikastea eta abestea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Abestia ulertzea.

Ikasketa-adierazleak

3.1. Badu keinuen bidezko adierazkortasuna.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Kokapena adierazteko lexikoa ulertzea eta erabiltzea: ezkerra, eskuina, aurrean...

Nolakotasuna adierazteko lexikoa ulertzea eta erabiltzea:

- Kolorea: gorria, berdea, ...
- Itxura: zatitua, erdibitua, ...

Ezkutuaren eta armariaren atalak bereiztea: hondoa, burua, punta eta bordura.

Deskripzioaren egitura: hondoaren kolorea, hondoko irudiak eta bordura.

Noren: ...-ren.

Adizkiak: du/ditu.

Ebaluazio-irizpideak

4. Ezkutuen eta armarien esanahia ulertzea, elementu bakoitzaren esanahia identifikatuz eta ezagutuz, gure arbasoen izaera eta bizimodua ulertzeko.

Ikasketa-adierazleak

4.1. Badaki koloreen esanahia lexiko egokiz adierazten.

4.2. Deskripzioan, erabiltzen du lexiko zuzena.

4.3. Ahozko deskripzioan, badaki aditza 3. pertsonan erabiltzen.

4.4. Errespetatzen ditu ortografia arauak.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasuna

- Zaldunen eta ezkutuen mundua ezagutzea.
- Espazioan orientatzea; ezkutuen eta armariaren ezkerrekoa eta pertsonena bereiztea.
- Elementuak espazioan kokatzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Informazioa sortzeko, aukeratzeko eta tratatzeko baliabideak erabiltzea.
- Informazioa ereduetatik ateratzea eta ekoizpenean erabiltzea

Hizkuntza-gaitasuna

- Idatzizko deskripzioa egitea.
- Ahozko deskripzioa egitea.
- Solasaldian aritzea.

Gaitasun digitala

- Marrazkiak interpretatzea.
- Behaketaren bidez informazioa ateratzea.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Besteen ezkutuen marrazkiak errespetatzea eta balioestea.
- Erabakiak hartzea eta emaitzak onartzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Ezkutuak eta armarrak ulertzea.
- Irudimenaz, beste bat sortzea.
- Ideiak, sentimenduak, izaera... marrazkiz adieraztea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Lana planifikatzea eta zirriborroa egitea.
- Egitekoak antolatzea.

9. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, animalien karta-jolasa prestatuko dute taldeka, eta, gero, jolastu egingo dira.

Unitate honetan, animalien ezaugarri batzuk ikasiko dituzte ikasleek. Ezaugarri horien arabera, sailkapenak egingo dituzte kartetan aritzeko. Animaliei buruzko bi karta mota egingo dituzte.

Multzo batean, animaliak familiaka sailkatuko dituzte, ezaugarri hauek kontuan hartuz: handiak, azkarrak, txikiak, pozoitsuak eta pisu handikoak. Beste multzoan, ezaugarri horiei buruzko galderak idatziko dituzte. Zein da animaliarik (ezaugarria)ena?

Unitatearen helburua jolas-giroan euskaraz hitz egitea da.

METODOLOGIA

Taldeka lan egingo da. Denetara, sei talde egingo dira, ezaugarrien arabera. Taldean, familia bakoitzeko karta- eta galdera-kopurua erabakiko dute. Lana banatzen eta ardurak hartzen ikasiko dute.

Internet eta liburutegia erabiliko dituzte informazio fidagarria aurkitzeko. Gela osoa, azpitaldetan banatuta, kartetan jolastuko dira.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

Usteak ahoz adieraztea.

Besteek diotena ulertzea.
Solasaldian aritzea, karta-jokoan.
Karta jokoko galde-erantzunak ulertzea eta egitea.
Animalien arteko konparazioak egitea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Kartetan jolastea, galde-erantzunen bidez, eta ezaugarrien arabera animalien familiak osatuz, euskaraz jolasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Jolasean, egiten dituzte galdera-erantzun zuzenak.
- 1.2. Badaki zer karta duen adierazten, esapide egokia erabiliz.
- 1.3. Familia egitean, erabiltzen du esapide egokia.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

Animaliei buruzko informazioa irakurtzea eta ulertzea.
Hainbat iturritatik informazioa aurkitzea.
Beste hizkuntzetan erabilitako estrategiak euskaraz erabiltzea.
Animalien ezaugarri nabarmenenak bereiztea eta idaztea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Taldeka, kartak paperez egitea, galdera- eta erantzun-kartak bereiziz eta informazioa toki egokian kokatuz, denon artean jolasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Badakite lanak banatzen eta bakoitzak bere ardura hartzen
- 2.2. Erabiltzen ditu informazioa aurkitzeko teknologia berriak.
- 2.3. Kartetan, idazten ditu animalien izena eta ezaugarriak.
- 2.4. Kartetan, badaki galdera ezaugarriaren arabera idazten.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

Liburutegia erabiltzea.
Alegia: *Idia eta igela*.

Ebaluazio-irizpideak

3. Irakurtzea eta ulertzea, irudien bitartez esanahia ahoz adierazteko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Gauza da alegiaren esanahi egokia aukeratzeko.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

Abiadura, neurria, pisua: orduko ...kilometroko abiadura hartzen du, ...k ... zentimetroko/kiloko luzera/pisua du.

Superlatiboa: azkarrena, handiena...
Konparazioak: ...baino handiagoa /azkarragoa
Ustea: ...dela uste dut.

Ebaluazio-irizpideak

4. Pisu, neurria eta abiadura adierazteko esamoldeak ulertzea eta erabiltzea, superlatiboa erabiliz eta konparazioak eginez, jolasen bidez ikasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Kartetan, badaki informazioa ondo idazten: luzera, pisua, abiadura edo pozoitsua den.
- 4.2. Galdera-kartetan, ondo erabiltzen ditu galdera eta superlatiboa.
- 4.3. Badaki superlatiboa erabiltzen.
- 4.4. Erantzunean, ondo erabiltzen du konparazioa.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Animaliei buruzko informazioa ezagutzea, sailkatzea eta berarekin jolastea.
- Pisu, neurri eta abiadura kontzeptuak beste egoera batean erabiltzea.
- Animaliak sailkatzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Lana taldean banatzea.
- Erabakiak denon artean hartzea eta adostea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Animaliak deskribatzea.
- Kartetan jolastea.
- Galde-erantzunak ematea.
- Gaiaren inguruan solasaldian aritzea

Gaitasun digitala

- Informazioa aurkitzea eta hautatzea.
- Teknologia berriak erabiltzea.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Denon lana balioestea.
- Lankidetzan aritzea, proiektua ateratzeko.
- Jolaseko arauak errespetatzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Kartak sortzean irudimena erabiltzea.
- Informazioa era plastikoan adieraztea eta berarekin jolastea.
- Alegia irakurtzea eta ulertzea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Ikasitakoa beste egoera batean erabiltzea.

10. UNITATEA

AZALPENA

Azken xede moduan, oparia eta gonbit-txartela egingo dute elkarren artean banatzeko.

Azken unitate hau jolas-giroan planteatzen da. Lagun ikusezinaren jolasa prestatuko dute haurrek, oparia egiteko. Oparia gonbit-txartelarekin batera banatuko da, ikaskidearen ezaugarriak aintzat hartuz.

Opari moduan, zotzez egingo dituzte objektuak, gero elkarri banatzeko.

METODOLOGIA

Banakako lana izango da; oparia jasoko duen pertsonaren ezaugarrien arabera egingo ditu ikasle bakoitzak gonbit-txartela eta eskulana.

Eskulanetarako jarraibide-testua irakurri, ulertu eta erabiliko dute opariak egiteko.

Objektuak erabiltzeari dagokionez, irudimena eskatuko zaie. Ereduak eta karta-jolasa dituzte hori garatzeko.

Azkenik, norberak urtean zehar egindakoaren edo ikasitakoaren ebaluazioa egingo dute.

EDUKI MULTZOAK

Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Edukiak

Hipotesiak egitea eta frogatzea.

Jarraibide-testua ulertzea.

Irudimena erabiltzea, erantzunak ematean.

Solasaldian aritzea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Lagun ikusezinean jolastea, zozketaren bidez pertsona aukeratuz, eta opariak eskuz eginez, elkarri emateko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Azaltzen du gauzak zertarako diren eta zertarako erabil daitezkeen.
- 1.2. Badaki gauzen ohiko erabileraz gain beste batzuk ere aipatzen.
Pertsonen ezaugarrien arabera, erabiltzen du esapide egokia.
- 1.3. Opariak jasotzean, eskertzen du begirunez.

Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

Edukiak

- Gonbit-txartela idaztea.
- Jarraibide-testua irakurtzea eta ulertzea.
- Irudiak eta testua erlazionatzea.
- Irudimena erabiltzea, gonbit-txartelak prestatzean.

Ebaluazio-irizpideak

2. Gonbit-txartela idaztea, atalak argi bereiziz: norentzat den, zertarako den eta agurra, elkarren alde onak ezagutzeko eta mezu positiboak elkarri bidaltzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Badaki gonbitaren atalak bereizten eta falta dena osatzen.
- 2.2. Ulertzen du atal bakoitzaren informazioa, eta erlazionatzen du irudi egokiarekin.
- 2.3. Gauza da ereduetatik informazioa ateratzeko.
- 2.4. Ezaugarriaren edo zaletasunaren arabera, badaki norentzat den idazten.
- 2.5. Ondo idazten du zertarako den edo erabil daitekeen.
- 2.6. Erabiltzen du irudimena idaztean eta txartelaren itxuran.

Literatura- hizkuntza

Edukiak

- Komikia irakurtzea.
- Olerkia, abestia eta kontakizuna irakurtzea.
- Irakurketaz gozatzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Gaztelugatxeko kondaira ulertzea, irudiak interpretatuz, jakin-mina pizteko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Badu kontakizuna irakurtzeko jakin-mina.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala

Edukiak

- Gonbit-txartelaren egitura: norentzat, zertarako eta agurra.
- Txukuntasunaren eta zuzentasunaren garrantzia aintzat hartzea.
- Norentzat: ..(r)entzat.
- Pertsonen ezaugarriak eta zaletasunak.
- Zertarako: ...teko/tzeko
- Opa-agurrak bereiztea: ..onak izan, ondo ibili...

Ebaluazio-irizpideak

4. Gonbit-txartelaren egitura ezagutzea, ereduak aztertuz eta birmoldatuz, zuzen idazteko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ondo idazten du agurra.
- 4.2. Gonbit-txartelaren egituran, ondo idazten du norentzat eta zertarako den, baita agurra ere.

GAITASUNAK

Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak

- Pertsonen zaletasunak eta ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzea.
- Kalkuluak eta espazioaren antolaketa, eskulanak egitean.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Norberaren lanaren balioespena.
- Lan planifikatua izatea.
- Erabakiak hartzea.

Hizkuntza-gaitasuna

- Gonbita idaztea.
- Jarraibideak ulertzea.
- Hipotesiak adieraztea.

Gaitasun digitala

- Informazioa interpretatzea.
- Irudien bidez komunikatzea.

Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa

- Besteen ezaugarri positiboak nabarmentzea eta gonbitean idaztea.
- Bestea balioestea.
- Besteen mugak onartzea.

Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak

- Irudimena erabiltzea, eta ikuspegi ezberdinaren arabera gauzak zertarako diren asmatzea.
- Irudimena erabiltzea, gonbit-txartela sortzean.
- Euskal abestiak ikastea.

Ekimena eta jarrera ekintzailea

- Ikasturtean landutako hainbat eduki beste egoera batean erabiltzea.